


Euskal AEko BPGa % 2,2 hazi da 2025eko bigarren hiruhilekoan eta 14.000 lanpostu baino gehiago sortu dira

Urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, BPGa % 0,5 igo da, eta enplegua % 0,3

Euskal AEko barne-produktu gordinak (BPGak) % 0,5 egin du gora hiruhileko arteko terminoetan 2025eko bigarren hiruhilekoan, urte arteko % 2,2ko hazkundearen ondoren, Eustatek landutako datuen arabera. Enpleguak, arduraldi osoko lanpostu baliokideen arabera neurtuta, % 0,3 egin du gora urteko bigarren hiruhilekoan, urteko lehen hiruhilekoaren aldean. Horrek esan nahi du, urte arteko terminoetan, % 1,4ko hazkundera izan dela, hau da, guztira, aurreko urteko bigarren hiruhilekoan baino 14.035 lanpostu garbi gehiago sortu dira.



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Urteko bigarren hiruhilekoko estimazio horiek egiteko unean eskura zegoen informazio koiuntural ekonomiko guztia jasotzen dute, eta Eustaten uztailaren 16ko *Hiru hilean behingo kontuen aurrerapenean* lortutako BPGaren eta enpleguaren estimazioak berresten dituzte, bai hiruhileko arteko hazkunderari dagokionez, bai urte arteko hazkunderari dagokionez. Gainera, 2023ko eta 2024ko hiruhileko guztiak berrestimatu dira, Eustaten *Kontu ekonomikoetan* egindako urteko agregatuen balio berriekiko koherentzia bermatzeko.

2025eko bigarren hiruhilekoan, euroguneko ekonomiarako (% 1,5) eta Europar Batasun osorako (% 1,6) egindako azken estimazioaren gaineratik dago Euskal AEko BPGaren urte arteko hazkunde estimatua (% 2,2). Uztailaren 29ko *Espainiako hiru hilean behingo kontabilitate nazionalaren* aurrerapenean, bestalde, Estatu osorako urte arteko % 2,8ko hazkunde estimatu zen.

Eskaintzaren ikuspegitik, balio erantsiaren bilakaera positiboa izan da urte arteko datuei dagokienez (2025eko bigarren hiruhilekoa, 2024ko bigarren hiruhilekoarekiko) sektore ekonomiko guztietan, lehen sektorean izan ezik.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2025/II

	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	II
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	12,2	4,3	4,5	3,4	3,4	0,6	-0,4
Industria eta energia	2,2	2,0	2,6	1,8	0,7	0,4	0,1
Manufaktura-industria	1,8	1,7	2,3	1,3	0,3	0,2	0,0
Eraikuntza	4,2	2,0	2,0	1,4	1,3	1,7	3,1
Zerbitzuak	3,3	2,9	3,1	2,7	2,5	2,7	2,8
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	3,8	2,0	1,9	1,2	1,7	2,9	3,3
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	1,2	2,9	3,3	2,9	2,2	2,0	2,1
-Gainerako zerbitzuak	4,2	3,5	3,7	3,5	3,2	2,8	2,7
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	3,2	2,6	2,7	2,2	1,8	2,1	2,1
-Produktuen gaineko zerga garbiak	1,7	1,6	1,4	1,4	1,9	2,3	2,4
BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan	3,0	2,5	2,6	2,1	1,8	2,1	2,2

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2025eko Irailaren 19a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Izan ere, **lehen sektoreak** balio erantsia % 0,4 jaitsi du termino errealetan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, baina aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,2 igo da.

Industriaren sektorean, balio erantsia % 0,1 igo da urte arteko terminoetan, baina manufaktura-industria aurreko urteko bigarren hiruhilekoaren maila berean mantendu da. 2025eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, bai industria osoa, bai manufaktura-industria % 0,3 murriztu dira.

Eraikuntzaren sektoreak balio erantsiaren urte arteko % 3,1eko igoera izan du 2025eko bigarren hiruhilekoan, termino errealetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta % 1,3ko gora egin ondoren.

Zerbitzuen sektorearen jarduera globala % 2,8 zabaldu da 2024ko hiruhileko berarekin alderatuta, hau da, balio erantsia % 0,7 igo da urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta.

Zerbitzuen portaera positiboa izan da azken hiruhilekoan, bereizitako hiru adarretan. **Merkataritza, ostalaritza eta garraioa** adarraren balio erantsia % 3,3 igo da aurreko urteko bigarren hiruhilekoaren aldean, aurreko hiruhilekoarekiko % 0,6 igo ondoren. Urte arteko hazkundea esanguratsua izan da, halaber, **Gainerako zerbitzuak** adarrean —higiezin-jarduerak, profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, baita finantza- eta aseguru-jarduerak ere biltzen ditu—, urte arteko % 2,7ko hazkunde-tasarekin. Aurreko hiruhilekoaren aldean, hazkundea % 0,8koa izan da.

Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak adarrean, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta % 0,7 aurrera egin ondoren, balio erantsiaren hazkundea % 2,1koa izan da 2024ko bigarren hiruhilekoarekiko.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2025/II

	2024			2025	
	II	III	IV	I	II
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	1,2	0,2	0,4	-1,1	0,2
Industria eta energia	0,1	0,3	0,0	0,0	-0,3
Manufaktura-industria	-0,2	0,1	0,1	0,1	-0,3
Eraikuntza	0,0	0,4	0,5	0,8	1,3
Zerbitzuak	0,7	0,4	0,6	1,0	0,7
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,2	0,5	0,8	1,4	0,6
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	0,6	0,3	0,2	0,9	0,7
-Gainerako zerbitzuak	0,9	0,5	0,6	0,8	0,8
Balio erantsi gordina oinarritzko prezioetan	0,5	0,4	0,4	0,8	0,5
-Produktuen gaineko zerga garbiak	0,4	0,6	0,7	0,6	0,5
BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan	0,5	0,4	0,4	0,7	0,5

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2025eko Irailaren 19a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Agregatu sektorialen urte arteko joerak % 2,1eko urte arteko hazkundera eragin du Euskal AEko **balio erantsian** 2025eko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan ikusitakoaren % 0,5 gainetik.

Eskariaren aldetik ere, hazkunde orokortuak izan dira. Etxeetako azken kontsumoko gastuak eta EZIAGE – etheen zerbitzurako irabazi asmorik gabeko erakundeek (**kontsumo pribatua**) % 2,9ko urte arteko hazkundera izan dute, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,9 igo ondoren.

Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua (**kontsumo publikoa**) % 0,2 igo da 2024ko hiruhileko berarekin alderatuta, eta, hain zuzen ere, aurreko hiruhilekorako estimatutakoaren % 0,8 azpitik kokatu da.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2025/II

	2023	2024	2024			2025	
			II	III	IV	I	II
Gastua azken kontsumoan	1,9	2,8	2,8	2,3	2,4	2,4	2,3
Familien eta EZMAEDE-en azken kontsumo gastua	2,0	2,5	2,5	1,9	2,2	2,6	2,9
Herri administrazioen azken kontsumo gastua	1,9	3,5	3,7	3,9	3,1	1,9	0,2
Kapitalaren osaketa gordina	2,4	2,7	2,9	2,5	2,2	2,3	3,5
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	1,3	2,4	1,8	3,1	3,6	3,0	4,0
Gainerako Kapitalaren Eraketa Gordina	3,2	2,9	3,6	2,1	1,3	1,8	3,2
Barne-eskaria	2,1	2,8	2,8	2,4	2,4	2,4	2,6
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak	-1,1	0,1	1,3	2,6	0,6	2,0	0,8
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak	-2,2	0,4	1,6	2,9	1,4	2,4	1,4
BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan	3,0	2,5	2,6	2,1	1,8	2,1	2,2

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2025eko Irailaren 19a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Kontsumo publikoaren eta pribatuaren baterako bilakaerak **azken kontsumoko gastuaren** urte arteko % 2,3ko hazkundera ekarri du, eta urteko lehen hiruhilekoaren aldean, % 0,5eko hazkundera.

Kapital-eraketa gordinen (inbertsioa), urte arteko hedapena % 3,5ekoa izan da, aurreko hiruhilekoarekiko % 2,1eko hazkundera izan ondoren. **Ekipo-ondasunetan** egindako inbertsioa % 4,0 igo da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, hau da, % 2,3 igo da hiruhileko artean.

Eraikuntzaren bilakaerari lotuago dagoen **kapital-eraketa gordinaren gainerakoan**, urte arteko hazkundera % 3,2an kokatu da, aurreko hiruhilekoarekiko % 1,9ko igoera zenbatetsi ondoren.

Barne-eskariak (azken kontsumoko gastuak eta kapital-eraketa gordinak osatzen dute) % 2,6ko urte arteko hazkundera izan du urteko bigarren hiruhilekoan. Hazkunde hori BPGrako estimatutakoaren gainetik dagoenez (% 2,2), **kanpo-sektorearen** ekarpena negatiboa izan da urteko lehen hiruhilekoan. Izan ere, ondasun eta zerbitzuen **esportazioak** % 0,8 igo dira urte arteko terminoetan, inportazioak baino gutxiago, inportazioak % 1,4 handiagoak izan baitira aurreko urteko bigarren hiruhilekoan ikusitakoak baino. **Kanpoko saldoak**, beraz, eragin negatiboa izan du Euskal AEko ekonomia osoaren urte arteko bilakaeran 2025eko bigarren hiruhilekoan.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE (%). 2025/II

	2024			2025	
	II	III	IV	I	II
Gastua azken kontsumoan	0,6	0,6	0,7	0,6	0,5
Familien eta EZMAEDE-en azken kontsumo gastua	0,5	0,6	0,9	0,6	0,9
Herri administrazioen azken kontsumo gastua	0,9	0,6	0,0	0,3	-0,8
Kapitalaren osaketa gordina	0,9	0,4	0,3	0,7	2,1
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	1,2	0,9	0,4	0,4	2,3
Gainerako Kapitalaren Eraketa Gordina	0,6	0,1	0,2	0,9	1,9
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak	3,8	0,3	-2,8	0,7	2,6
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak	4,1	0,5	-2,6	0,5	3,1
BarneProduktu Gordina merkatu-prezioetan	0,5	0,4	0,4	0,7	0,5

Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Data 2025eko Irailaren 19a

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontu ekonomikoak

Enplegu-mailei dagokienez (**arduraldi osoko lanpostu baliokideetan** neurtuta), enplegu osoa % 1,4 igo da 2024ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, aurreko hiruhilekoarekiko % 0,3 igo ondoren.

Lehen sektoreak % 0,1eko jaitsiera izan du enpleguan 2024ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta hiruhileko arteko terminoetan ere % 0,1eko jaitsiera izan du. Industrian, lanpostuen urte arteko sorrera % 0,2koa izan da, hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 0,2 enplegu gutxiago sortu da. Eraikuntzan, enpleguaren bilakaera positiboa izan da, bai urte artean (% 1,9ko igoera), bai hiruhileko artean (% 0,5eko igoera). Azkenik, Zerbitzuen sektorean, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua % 1,8 igo da urte arteko terminoetan, hiruhileko arteko terminoetan % 0,4 igo ondoren.

BPGak lurralde historikoen arabera izandako bilakaerari dagokionez, 2025eko bigarren hiruhilekoan Arabak % 2,0ko urte arteko hazkundera izan du, Bizkaiak % 2,2koa eta Gipuzkoak % 2,3koa. Aurreko hiruhilekoaren aldean, Araban % 0,6 hazi da, eta Bizkaian eta Gipuzkoan % 0,5.

Kontu ekonomikoak. 2023rako behin betiko datuen zabalkundeak eta Eustaten *Urteko kontu ekonomiko*en 2024ko aurrerapenak ekarri dute Euskal AEko BPGaren estimazioak hiru hamarren hobetzea urtero, eta azken hazkunde-estimazioak % 3,0koak izan dira 2023rako, eta % 2,5ekoak 2024rako, bolumen kateatuan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62